

AUTOMOZIOA (HZ GOI MAILA)

Ezarri berri den LOE Heziketa Zikloa. **Indarrean 2010-2011 ikasturtetik aurrera**

ZIKLOAREN HELBURUAK

- Titulu bakoitzari dagokion produkzio-sektorearen erreferentzian isladatuta dagoen lanbide-gaitasuna eskuratzeko heziketa ematea.
- Dagokion produkzio-sektorearen antolamendua eta ezaugarriak eta sektore horretan lanbideratzeko mekanismoak ulertzeko, oinarrizko lan-legeria eta lan-harremanetatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak ezagutzeko, eta segurtasun-baldintzetan lan egiteko eta lan-egoeretan sor daitezkeen arriskuak aurreikusteko beharrezkoak diren ezaguera eta trebetasunak eskuratzeko heziketa ematea.
- Etorkizuneko ikaskuntzetarako eta prestakuntzen aldaketari dagozkion etorkizuneko egokitzapenetarako motibagarria izango den nortasun eta heldutasun pertsonal eta profesionala eskuratzeko heziketa ematea.
- Lanbidean jardutearen bidez ingurugiroaren zaintza eta errespetuan eta prozesu, produktu edota zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartzeko heziketa ematea.

GAITASUN OROKORRA

Titulu honen kompetentzia orokorra honetan datza: automozioaren sektorean mantentze-lanen eta logistikaren gauzatzea antolatu, programatu eta gainbegiratzea, kasu konplexuetan matxurak diagnostikatzea, eta araudiak eta ibilgailuaren fabrikatzaileak ezarritako zehaztapenak bete daitezen ziurtatzea.

GAITASUN ATALAK

Tekniko honek egiaztatu behar dituen atalak dira:

- Sistema elektrikoak, elektronikoak, segurtasunekoak eta erosotasunekoak konpontzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.
- Indarren transmisio-sistemak eta errodate-trenak konpontzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.
- Motor termikoak eta horien sistema osagarriak konpontzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.
- Egiturazkoak ez diren elemento mugigarriak eta finakoak konpontzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.
- Gainazalak babestu, prestatu eta txukuntzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.

- Ibilgailuen egiturak konpontzeko prozesuak planifikatzea, eta horien gauzatzea kontrolatzea.
- Ibilgailuen mantentze-lanak eta horiekin lotutako logística kudeatzea eraginkortasunari eta kalitateari buruzko irizpideak kontuan izanda.

LANBIDE IRTEERAK

Lanbide-irudi honek ibilgailuak eraiki eta mantentzeko sektorean dihardu, zehazki, azpisektore hauetan: automobilak, ibilgailu astunak, traktoreak, nekazaritzako makineria, erauzpen industrietako makineria eta eraikuntzako eta obra publikoetako makineria; aseguru-konpainiak; ibilgailuak eta osagaiak fabrikatzen dituzten enpresak; ibilgailuen azterketa teknikoan diharduten enpresak; ibilgailuen multzo eta azpimultzoekin saiakuntzak egiten dituzten laborategiak; ibilgailuak egiaztatu eta diagnostikatzeko ekipoak, eta haien ordezeko piezak fabrikatu, saldu eta merkaturatzen dituzten enpresak; eta alokatzeko ibilgailuen floten, zerbitzu publikoen, eta bidaiari eta salgai garraioaren enpresak.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Elektromekanikaren arloko burua.
- Ibilgailuen hartzailea.
- Ibilgailuen motordunen lantegiko burua.
- IAT ibilgailuen azterketa teknikoaren arduraduna.
- Ibilgailuen peritu tasatzailea.
- Zerbitziburua.
- Ordezko piezen arloaren arduraduna.
- Ibilgailuen lotutako ekipoen merkataritza-arloaren arduraduna.
- Karrozeriaren arloko burua: txapa eta pintura.

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA LEHENENGO IKASTURTEAN: 990 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
<p>Sistema elektrikoak eta segurtasun eta erosotasunekoak</p> <p align="center">ASE</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zirkuituak muntatzea. ✓ Ibilgailuen segurtasun eta erosotasun sistema elektrikoak. ✓ Sistemetan matxurak diagnostikatzea. ✓ Konponketa prozedurak zehaztea. ✓ Sistema elektrikoak eta segurtasun eta erosotasunekoak mantentzea. ✓ Ibilgailuetan garrantzizko berrikuntzak planifikatzea. 	231 ordu
<p>Motor termikoak eta sistema osagarriak</p> <p align="center">AMX</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Motor termikoen funtzionamendua eta osagaiak. ✓ Motorraren elementuak egiaztatzea. ✓ Motorraren sistema osagarrien funtzionamendua. ✓ Motorretan eta sistema osagarrietan matxurak diagnostikatzea. ✓ Konponketa prozedurak. ✓ Motorretan eta sistema osagarrietan matxurak konpontzea. 	231 ordu
<p>Egiturazkoak ez diren elementu mugigarriak eta finkoak</p> <p align="center">AAF</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Piezen eta tresnerien irudikapen grafikoa. ✓ Oinarrizko mekanizazio eragiketak. ✓ Elementu mugigarriak, osagarriak eta jantziak ordezkatzea. ✓ Elementu metalikoak eta sintetikoak identifikatu eta konpontzea. ✓ Elementu finkoak lotzea. ✓ Hautazko transformazioak. 	231 ordu
<p>Ibilgailuen egiturak</p> <p align="center">AEV</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Karrozeriak fabrikatu eta mihiztatzeko prozesua. ✓ Karrozeriaren egituraren kalteak identifikatzea. ✓ Egituran izandako deformazioak diagnostikatzea. ✓ Karrozeriak prestatzeko aurrekontuak egitea. ✓ Ibilgailuen egiturak bankadekin konpontzea. ✓ Garrantzizko aldaketak eta berrikuntzak planifikatzea. 	132 ordu
<p>Komunikazio eta harreman teknikak</p> <p align="center">ATC</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Komunikazio teknikak. ✓ Bezeroari arreta egitea. ✓ Enpresa irudia helaraztea. ✓ Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak kudeatzea. ✓ Zerbitzuen kalitatea kontrolatzea. 	66 ordu
<p>Laneko prestakuntza eta orientabidea</p> <p align="center">FOL</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko prozesua. ✓ Gatazka eta lan taldeak kudeatzea. ✓ Lan kontratuaren ondoriozko lan baldintzak. ✓ Gizarte segurantzaren enplegua eta langabezia. ✓ Arrisku profesionalak ebaluatzea. ✓ Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea. ✓ Enpresan prebentzio eta babes neurriak aplikatzea. 	99 ordu

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA BIGARREN IKASTURTEAN: 1010 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
<p>Indarren transmisio-sistemak eta errodate-trenak</p> <p align="center">ATR</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Instalazio pneumatikoak eta hidraulikoak muntatzea. ✓ Indarren transmisio sistemen eta errodate trenen eraginkortasuna interpretatzea. ✓ Indarren transmisio sistemetan eta errodate trenetan matxurak diagnostikatzea. ✓ Konponketa prozedurak zehaztea. ✓ Errodate trena mantentzea. ✓ Indarren transmisio sistemak mantentzea. ✓ Arriskuen prebentzioa, segurtasuna eta ingurumen babesa. 	<p align="center">220 ordu</p>
<p>Gainazalen tratamendua eta estaldura</p> <p align="center">ATS</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Prestatu, babestu, berdindu eta txukuntzeko teknikak. ✓ Gainazalak babestu eta berdintzeko produktuak aplikatzea. ✓ Pintura prestatzea. ✓ Gainazalak pintatzea. ✓ Akatsak zuzentzea. ✓ Arriskuei aurre hartzeko, segurtasun pertsonaleko eta ingurumen babeseke neurriak aplikatzea. 	<p align="center">200 ordu</p>
<p>Ibilgailuen mantentze-lanen kudeaketa eta logistika</p> <p align="center">AGL</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ibilgailuak mantentzeko prozesuak. ✓ Kargen arabera lana banatzeko planak egitea. ✓ Flota handiak mantentzea. ✓ Biltegiatzea eta biltegiaren kontrola. ✓ Ingurumen kudeaketako planak eta arauak. ✓ Kalitateko eta ingurumen kudeaketako planak egitea. ✓ Txostenak eta aurrekontuak jaso eta egitea. 	<p align="center">80 ordu</p>
<p>Automozioko proiektuak</p> <p align="center">APA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proiektua egitea. 	<p align="center">50 ordu</p>
<p>Ingeles teknikoa</p> <p align="center">I</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Profilarekin lotutako ahozko mezuak ulertu eta sortzea. ✓ Profilarekin lotutako idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea. ✓ Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea. 	<p align="center">40 ordu</p>
<p>Enpresa eta ekimen sortzailea</p> <p align="center">EIE</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekimen sortzailea. ✓ Enpresa ideiak, ingurunea eta haien garapena. ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea. ✓ Administrazio funtzioa 	<p align="center">60 ordu</p>
<p>Lantokiko prestakuntza</p> <p align="center">FCT</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Modulua burutuko den enpresaren arabera. 	<p align="center">360 ordu</p>